

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure proiektuaren kasuan, zerbitzu automatizatua erabiltzea erabaki dugu, hau da, gure produktua web gune baten bitartez ahalbidetzea gure bezeroei, denda fisiko batera joateko beharrik izan gabe. Gure bezeroak mantentzea zaila izango da, izan ere, behin produktua erosi eta gero normalena da ez erostea berriro denbora luzerako balio baitu; baina gure nahia bezero berriak erakartzea da. Hau egiteko, gure bezeroak ahalik eta modu egokienean zerbitzatzea izango da gure helburua, hauek errekomentatu gaitzaten beraien inguruko pertsonengan. Honetaz gain, zahar etxeetara bisita batzuk egingo ditugu gure produktua promozionatzeko